



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y
POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Promoción de la Cultura

ERABAKI-PROPOSAMENA, "DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA, SA" ENTITATEARI URTE ANITZEKO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEKO DENA, "IKUSMIRA BERRIAK" IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAREN GARAPENA FINANTZATZEKO, 2023-2024 EPEALDIAN

(Talentu berrientzako zinema-proiektuen azeleragailua)

PROPUESTA DE ACUERDO POR LA QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA PLURIANUAL A LA ENTIDAD "FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE SAN SEBASTIAN, S.A." PARA FINANCIAR EL DESARROLLO DEL PROYECTO AUDIOVISUAL "IKUSMIRA BERRIAK", PERÍODO 2023-2024

(Aceleradora de proyectos de cine para nuevos talentos)

AAAA_ACG_AY_6129/23_11

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, besteak beste, Kultura Plangintzako Zerbitzuari dagozkion eginkizunak ditu esleituta. *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren arabera*, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio funtzio orokorrak betetzea honako arlo hauetan: musika, arte eszenikoak, liburuak, ikus-entzunezkoak, ikusizko arteak eta kultura- eta sormen-industriak; eta, zehazki, bere eskumeneko arloetan, kultura-proiektuen sorkuntza, ekoizpena eta hedapena sustatzeko ekintzak proposatu eta kudeatzea, bai eta kultura-sektorearekin hitz egiteko eta kontrastatzeko espazioak sustatu eta kudeatzea eta, hala badagokio, proposamen berriak bultzatzea ere (12.1 artikulua).

"Ikusmira Berriak" azeleratzailea sortzen ari den talentua eta ikus-entzunezko sorkuntza babesten eta bultzatzen dituen egoitzen eta proiektuen garapenaren programa da. ZINEMALDIAK eta Donostiako Tabakaleraren eraikinean bizi diren hainbat erakunde elkarlanean antolatutako zinemagileentzako egoitza- programa da. Egoitza-programaren helburua espazioa, testuingurua, denbora eta baliabideak eskaintzea da, eta programa bi ardatzen inguruan egituratzea: zinema-proiektuen prestakuntza eta garapena. Aliantza natural bat da, egoitza Tabakaleraren eraikinean baitago, munduan bakarra den proiektu bat, non kultura garaikideko nazioarteko zentro bat, nazioarteko zinemaldi bat, zinema-eskola bat eta filmoteka nazional bat diren. Erakunde horiek guztiek hiru bultzada estrategiko partekatzen dituzte: zinemari buruzko ezagupenaren prestakuntza eta transmisioa; talentu berriak bilatzea, laguntza eta garapena; eta ikerketa eta pentsamendu zinematografikoa, hurbilketa teoriko-akademiko eta profesional bikoitzetik abiatuta. Hiru erakunde horien artean, zinematografia-talentuari laguntzeko sistema integral bat eratu nahi da: sistema hori ez da mugatzen proiektu bat sortze eta ekoizte eta ikusarazte hutsera; aitzitik, zinemagileak denboran zehar modu iraunkorrean prestatu, lagundu eta babestea du helburu. Ikasgeletatik hasi eta filmak erakutsi arte ematen den laguntza da, zinemagile berriak ezagutarazteaz gain, karrera egiten eta zinema-arloan bitzita profesionala garatzen laguntzea bilatzen duena.

"Ikusmira Berriak" programa ZINEMALDIAKO Pentsamendu eta Eztabaida arloak definitutako lau ardatz estrategikoekin lerrotuta dago. Haren helburua da zinema-jaialdien nazioarteko zirkuitu aldakor batean sortzen ari diren erroka eta aukerei irtenbide sortzaile eta iraunkorrak aztertu, eta irtenbideak ematea: sorkuntza (prestakuntza-programak, proiektuen garapena eta talentu berriei laguntzea), industria (ekoizpen- eta banaketa-egiturak, teknologia berriak, sektoreko lan-iraunkortasuneko ereduak), lurraldea (hiri-ingurunearekiko eta arkitekturarekiko harremana, aurrez aurreko zinema-erakustaldiko ereduak, jaialdien eragin ekonomikoa) eta komunitatea (genero-identitateak eta ingurumen-iraunkortasuna). Gainera, "Ikusmira Berriak" Donostia eta Tabakalera proiektu zinematografikoak garatzeko nazioarteko erreferentzia-gune bihurtzea helburu duen etorkizun hurbileko erakundearteko makro-proiektu baten parte da. Baterako proiektu hau Tabakaleraren eraikineko komunitateari zuzenduta dago: EQZEko ikasle eta ikasleei, Nest-eko (zinema ikasleen nazioarteko topaketa) zinemagileei, Ikusmira Berriak eta Nokako egoiliarrei, Donostia Zinemaldian opera prima aurkeztu duten zinemagileei eta

El Departamento de Cultura y Política Lingüística tiene asignadas, entre otras, las funciones relativas al Servicio de Planificación Cultural. De conformidad con el *Decreto 73/2021, de 23 de febrero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística*, corresponde a la Dirección de Promoción de la Cultura el ejercicio de las funciones generales en las áreas de música, artes escénicas, libro, audiovisual, artes visuales e industrias culturales y creativas, y, específicamente, proponer y gestionar acciones dirigidas al fomento de la creación, la producción y la difusión de los proyectos culturales en el ámbito de las áreas de su competencia, así como promover y gestionar espacios de diálogo y contraste con el sector cultural e impulsar, en su caso, nuevas propuestas (artículo 12.1).

La aceleradora "Ikusmira Berriak" es un programa de residencias y desarrollo de proyectos que apoya e impulsa el talento emergente y la creación audiovisual. Se trata de un programa de residencias para cineastas que nace en el año 2015 coorganizado por ZINEMALDIA y varias instituciones que habitan el edificio de Tabakalera ubicado en San Sebastián; cuyo objetivo de residencia es ofrecer espacio, contexto, tiempo y recursos articulando su programa en torno a dos ejes: la formación y el desarrollo de proyectos cinematográficos. Se trata de una alianza natural, puesto que la residencia tiene lugar en el edificio de Tabakalera, un proyecto único en el mundo que alberga un centro internacional de cultura contemporánea, un festival de cine internacional, una escuela de cine y una filmoteca nacional. Todas estas instituciones comparten tres impulsos estratégicos: la formación y la transmisión de conocimientos de cine; la búsqueda, el acompañamiento y el desarrollo de nuevos talentos; y la investigación y el pensamiento cinematográfico desde un doble acercamiento teórico-académico y profesional. Entre estas tres instituciones se busca conformar un sistema de apoyo al talento cinematográfico integral: un sistema que no se limita a facilitar que un proyecto se produzca y se haga visible; sino que aspira a formar, acompañar y respaldar a sus cineastas de manera sostenida a lo largo del tiempo. Se trata de un apoyo que va desde las aulas hasta la exhibición de las películas y que busca, no solo dar a conocer a nuevas y nuevas cineastas, sino apoyarles a hacer carrera y a que desarrollen una vida profesional en el ámbito cinematográfico.

Este programa "Ikusmira Berriak" está alineado con los cuatro ejes estratégicos definidos por el área de Pensamiento y Debate del ZINEMALDIA que busca estudiar, analizar y dar soluciones creativas y sostenibles a los retos y oportunidades que se están generando en un cambiante circuito internacional de festivales de cine: la creación (programas de formación, desarrollo de proyectos y apoyo a nuevos talentos), la industria (estructuras de producción y distribución, nuevas tecnologías, modelos de sostenibilidad laboral en el sector), el territorio (relación con el medio urbano y la arquitectura, modelos de exhibición cinematográfica presencial, impacto económico de los festivales) y la comunidad (identidades de género y sostenibilidad medioambiental). Además, "Ikusmira Berriak" forma parte de un macro-proyecto interinstitucional de futuro próximo que busca convertir San Sebastián y Tabakalera en un espacio referencial a nivel internacional para desarrollar proyectos cinematográficos. Este proyecto conjunto está dirigido a la comunidad del edificio de Tabakalera: al alumnado y alumni de EQZE, a las y los cineastas de Nest (el encuentro internacional de estudiantes de cine), a las y los residentes de Ikusmira Berriak y



Tabakalerako zinema egoiliarrei) eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako zinemagileei, deialdi publikoen bidez.

Proiektuak 250.000,00.- euroko kostua izango du guztira. Beraz, *Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 53.8 artikuluan ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoaren muga errespetatuz*, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari 200.000,00.- euroko dirulaguntza eskatu diote 2023-2024 aldirako, honela banatuta:

urtealdia / <i>anualidad</i>	ehuneko / <i>porcentaje</i>	zenbatekoa / <i>cuantía</i>
2023	%25	50.000,00 €
2024	%75	150.000,00 €
GUZTIRA / TOTAL	%100	200.000,00 €

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak ikusi du Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari bere proiektuan laguntzeko beharra.

Interes publiko eta kultureko arrazoiak egiaztatuta, bai eta deialdia xedapen orokor baten bidez egiteko ezintasuna ere, proiektua gauzatu ahal izateko salbuespeneko zuzeneko dirulaguntzaren bidera baino ezin da jo.

Ondorioz, *Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.7 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori)*, Gobernu Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.- “Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, S.A.” (A20219283) entitateari urte anitzeko zuzeneko dirulaguntza ematea, 200.000,00.- eurotako, “IKUSMIRA BERRIAK” ikus-entzunezko proiektuaren garapena finantzatzeko, 2023-2024 epealdian (talentu berrientzako zinema-proiektuen azeleragailua), urteko banaketa honen arabera:

- 2023 (% 25): 50.000,00.- euro
- 2024 (% 75): 150.000,00.- euro

Dirulaguntza kontu-sail honi egotziko zaio:

1001112121 1.45133.41100 2023/001309

Urte anitzeko dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2023-2024 epealdian gauzatu beharko dira, eta, nolahi ere, 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute.

Bigarrena.- Urte anitzeko dirulaguntzaren URTEROKO ordainketak eta justifikazioa:

Noka, a cineastas que han presentado su ópera prima en el Festival de San Sebastián y a las residentes de cine de Tabakalera.) y, a través de convocatorias públicas, cineastas de la Comunidad Autónoma Vasca y de España.

El proyecto tendrá un coste total de 250.000,00.- euros, por lo que, respetando el límite al importe máximo de la ayuda establecido en el artículo 53.8 del *Reglamento (UE) 651/2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado* (RGEC), han solicitado al Departamento de Cultura y Política Lingüística una subvención, para el período 2023-2024, por importe de 200.000,00.- euros, que se distribuirán de la siguiente manera:

La Dirección de Promoción de la Cultura ha advertido la necesidad de apoyar al Festival Internacional de Cine de San Sebastián en su proyecto.

Acreditadas las razones de interés público y cultural que subyacen, así como la imposibilidad de realizar una convocatoria mediante una disposición de carácter general para concederla, solo puede acudir a la vía de la subvención directa excepcional para poder llevar a cabo el proyecto.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.7 del *Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre*, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

Primero.- Conceder una subvención directa plurianual a la entidad “Festival Internacional de Cine de San Sebastián, S.A.” (A20219283), por importe de 200.000,00.- euros, para financiar el desarrollo del proyecto audiovisual “IKUSMIRA BERRIAK”, en el período 2023-2024 (aceleradora de proyectos de cine para nuevos talentos), conforme a la siguiente distribución anual:

- 2023 (25%): 50.000,00.- euros
- 2024 (75%): 150.000,00.- euros

La subvención se imputará a la siguiente partida presupuestaria:

1001112121 1.45133.41100 2023/001309

Las actuaciones objeto de la subvención plurianual deberán ejecutarse en el período 2023-2024 y, en todo caso, deberán estar finalizadas antes del 31 de diciembre de 2024.

Segundo.- Pagos y justificación ANUAL de la subvención plurianual:

Ordainketak (urtealdi bakoitzean) / Pagos (en cada anualidad)		Justifikazioa (urtealdi bakoitzean) / Justificación (en cada anualidad)
2023 (50.000,00€)	Ordainketa bakarra, 2023ko urtealdiari dagokien zenbatekoa justifikatu eta gero. <i>Único pago, previa justificación del importe de la anualidad 2023</i>	Urtealdiari dagokien aurrekontu-likidatua (nominen, fakturen eta ordainagiriaren kopiekin batera) eta egindako jarduketaren gaineko txostena. Beranduenez, hurrengo urteko urtarrilaren 15ean.
2024 (150.000,00€)	(1) %80 (120.000,00€): 2023ko urtealdiaren ordainketarekin batera 80% (120.000,00€): <i>junto con el pago de la anualidad 2023</i>	

	(2)	Gainerako %20a (30.000,00€): 2024ko urtealdiari dagokion zenbatekoa (150.000,00€) justifikatu eta gero 20% restante (30.000,00€): <i>previa justificación del importe de la anualidad 2024 (150.000,00€)</i>	<i>Presupuesto liquidado de la anualidad (nóminas, facturas, justificantes de gastos) y la memoria de las actividades realizadas. No más tarde del 15 de enero del año siguiente.</i>
Era berean, 2025eko lehen hiruhilekoan, honako hau bidali beharko da: (1) urte anitzeko egitasmoaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu likidatua, urteka banakatuta; eta (2) egitasmoaren gaineko txostena. <i>Igualmente, dentro del primer trimestre del 2025 deberá remitir (1) el presupuesto liquidado de ingresos y gastos del proyecto plurianual, desglosado por anualidades y (2) el informe de las actividades.</i>			

Hirugarrena.- Dirulaguntza hau Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak kudeatuko du.

Laugarrena.- Erakunde onuraduna *Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. tituluaren aurreikusitako laguntzen eta dirulaguntzen araubide juridikoaren mende dago, xedapen horren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu eta, bereziki, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dioten informazio guztia eman beharko du.*

Bosgarrena.- Erabaki honen bidez onartutako dirulaguntza bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eman dezaketen beste edozeinekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Kasu horretan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak dagokion likidazio-agindua emango du, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa behar den mugaraino murriztuz.

Hala ere, laguntza hau ez da bateragarria izango Europar Batasuneko beste egitura-funtsekin.

Seigarrena.- Erakunde onuradunak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren hizkuntza-irizpideak bete beharko ditu, honela: herritarrei zuzendutako jarduerak, ekitaldiak, aurkezpenak eta abar, eta errotulazioa eta informazio-euskarriak, bai programetan, bai ikus-entzunezkoetan (bozgorailuak, panel elektronikoak, mezu automatikoak edo antzekoak), euskaraz egingo dira gutxienez, eta euskaraz eta gaztelaniaz badira, euskarari emango zaio lehentasuna.

Zazpigarrena.- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginak (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) 2.5 artikuluan ezartzen duenez, EAEko botere publikoek berdintasun-klausulak txertatuko dituzte dirulaguntzetan. Beraz, dirulaguntza hau gauzatzean, berdintasun-arloko klausula hauek aurreikusten dira:*

- Proiektuak aniztasuna, berdintasuna eta hezkidetzabaldioak sustatuko ditu zeharka eta aktiboki, eta sortzen diren edukiek eta materialek genero-ikuspegia txertatuko dute. Gainera, horietan hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista egingo da, eta emakumeek eremu digitalean duten parte-hartze aktiboa ikusaraziko da. Gainera, sexu-generoen presentzia orekatua eta irudi plurala bultzatuko dira, edertasun-kanonak eta estereotipo sexistak eta LGTBIfobikoak alde batera utzita.
- Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da herritarrei zuzendutako jardueran, ekitaldi, aurkezpen eta abarretan, bai errotulazioan eta bai informazio-euskarrietan (bozgorailuak, panel elektronikoak, mezu automatikoak...). Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Hizkuntza Inklusiboaren Gidalerroak hartuko dira kontuan.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza hau estatu-laguntza bat da, *Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala ere, ez da beharrezkoa EBFTren 108.3 artikuluan aurreikusitako*

Tercero.- El órgano gestor de esta subvención es la Dirección de Promoción de la Cultura.

Cuarto.- La entidad beneficiaria queda sujeta al régimen jurídico de ayudas y subvenciones previsto en el Título VI del *Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco*, al cumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 50.2 de dicha disposición y, en particular, a facilitar cuanta información le fuera requerida por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como por la Oficina de Control Económico del Departamento de Economía y Hacienda y por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Quinto.- La subvención aprobada mediante el presente Acuerdo es compatible con cualesquiera otras que pudieran conceder para el mismo fin otras entidades públicas o privadas, siempre que no se produzca sobrefinanciación, en cuyo caso el Consejero de Cultura y Política Lingüística dictará la orden de liquidación correspondiente, minorando el importe de la subvención adjudicada hasta el límite que sea necesario.

No obstante, la presente ayuda no será compatible con cualesquiera otros fondos estructurales de la Unión Europea.

Sexto.- La entidad beneficiaria deberá cumplir con los criterios lingüísticos del Departamento de Cultura y Política Lingüística de la siguiente forma: las actividades, actos, presentaciones, etc. dirigidos a la ciudadanía, y la rotulación y los soportes informativos, tanto en programas como en audiovisuales (altavoces, paneles electrónicos, mensajes automáticos o similares) será efectuarán, al menos, en euskera y, si son en euskera y castellano, se dará prioridad al euskera.

Séptimo.- El artículo 2.5 del *Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres* (aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo), establece que los poderes públicos vascos incorporarán cláusulas de igualdad en las subvenciones. Por tanto, en la ejecución de esta subvención se prevén las siguientes cláusulas en materia de igualdad:

- El proyecto promoverá de forma transversal y activa la diversidad, la igualdad y los valores coeducativos, y los contenidos y materiales que se generen incorporarán la perspectiva de género. Además, en ellos se hará un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y de las imágenes, y se visibilizará la participación activa de las mujeres en el ámbito digital. Además, se potenciará la presencia equilibrada y la imagen plural de los géneros sexuales, al margen de cánones de belleza y estereotipos sexistas y LGTBIfóbicos.
- Se realizará un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y de las imágenes en las actividades, actos, presentaciones, etc. dirigidas a la ciudadanía, rotulación y soportes informativos, tanto en programas como audiovisuales (altavoces, paneles electrónicos, mensajes automáticos...). Para ello se tendrán en cuenta las Directrices de Lengua Inclusiva del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Octavo.- La presente subvención es una ayuda de estado de conformidad con lo establecido en el artículo 107.1 del *Tratado sobre el Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE)*. No obstante, no es necesario realizar la notificación prevista en el artículo 108.3 TFUE



jakinarazpena egitea, laguntza salbuetsita geratzen baita, *Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen dituelako. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Europar Batasunaren Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (KASEO). Beraz, barne-merkatuarekin bateragarria den estatu-laguntza bat da, eta ez zaio Europako Batzordeari jakinarazi behar.*

Azken batean, laguntza hau KASEOren mende dago, eta, bereziki, arau horren 53. artikuluan kulturarentzako laguntzei buruz xedatutakoaren mende. Ondorioz, laguntzaren gehieneko zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen kostuen % 80koa izango da, besteak beste.

KASEOren 53.5 artikulua araber, gastu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

a) jarduera iraunkorrekin edo aldizkakoekin lotutako erakunde edo kultura-ondasunaren kostuak, erakusketak barne, jardueraren esparruan garatzen diren adierazpen eta kultura-ekintzak, eta antzeko kultur jarduera normalak.

b) hezkuntza artistiko eta kulturaleko jardueren kostuak, bai eta adierazpenen aniztasuna babestearren eta sustatzearen garrantzia iritzi publikoa heztea eta sentsibilizatzea, teknologia berriak ere erabiliz.

c) kultura-erakundeetarako edo kultura-intereseko ondasun eta jardueretarako irizpidea hobetzeko kostuak digitalizazioaren eta teknologia berrien erabileraren kostuak barne, baita hobekuntzaren kostuak ere, desgaitasunen bat duten pertsonentzako irisgarritasuna.

d) kultura-proiektuarekin edo -jarduerarekin zuzenean lotutako ustiapen-kostuak, hala nola alokairua edo errentamendua, ondasun higiezinak eta kultur etxeak, bidaia-gastuak, zuzenean lotutako materialak eta hornidurak, kultura-proiektua edo -jarduera, erakusketetarako eta dekoratuetarako arkitektura-egiturak, instrumentuen amortizazioa, programa informatikoak eta ekipoak, egile-eskubideek babestutako obretara sartzeko kostuak eta beste jabetza intelektualeko eskubideek, sustapen-kostuek eta zuzenean eratorritako kostuek babestutako edukiak proiektua edo jarduera.

e) kultura-erakundearentzat, kultura-intereseko ondasunarentzat edo proiektu batentzat lan egiten duten langileen kostuak.

f) kanpo-aholkulariek eta zerbitzu-hornitzaileek emandako aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuen kostuak, proiektutik zuzenean eratorritakoak.

Era berean, erakundea ezingo da onuradun izan honako bi inguruabar hauetako bat egiaztatzen bada:

- Krisialdian dagoen enpresa bada, *Krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauetan jasotako definizioaren arabera (2014ko uztailaren 31ko EBAO, C249).*
- Berreskuratze-agindu baten menpe dagoen, Europar Batasuneko Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela.

KASEOren 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak Europako Batzordeari helaraziko dio, jakinarazpen elektronikoko sistemaren bidez, dirulaguntza honi buruzko informazio laburtua, dirulaguntzaren testu osoarekin batera, aldaketak barne, Erabaki hau onartu eta 20 laneguneko epean.

Era berean, KASEOren 9. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak informazio hau argitaratuko du bere webgunean:

ya que la ayuda queda exenta porque cumple las condiciones establecidas en el *Reglamento UE 651/2014 de la Comisión de 17 de junio de 2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de la Unión (RGEC)*. Por lo tanto, se trata de una ayuda de estado compatible con el mercado interior que no ha de ser notificada a la Comisión Europea.

En definitiva, la presente ayuda queda sujeta al RGEC y, en particular, a lo dispuesto en el artículo 53 de dicha norma, relativo a las ayudas a la cultura. En consecuencia, entre otros, el importe máximo de la ayuda se establece en el 80% de los costes subvencionables.

De conformidad con el artículo 53.5 RGEC, serán subvencionables los siguientes gastos:

a) los costes de la institución o el bien cultural vinculados a actividades permanentes o periódicas, incluidas exposiciones, representaciones y manifestaciones, y actividades culturales similares que se desarrollen en el marco de actividad normal.
b) los costes de las actividades de educación artística y cultural, así como de la promoción de la comprensión de la importancia de la protección y promoción de la diversidad de las expresiones culturales mediante programas de educación y sensibilización de la opinión pública, utilizando también las nuevas tecnologías.

c) los costes de la mejora del acceso del público a instituciones culturales o bienes y actividades de interés cultural, incluidos los costes de la digitalización y de la utilización de las nuevas tecnologías, así como los costes de la mejora de la accesibilidad para las personas con discapacidad.

d) los costes de explotación directamente relacionados con el proyecto o la actividad cultural, como alquiler o arrendamiento de bienes inmuebles y centros culturales, gastos de viaje, materiales y suministros vinculados directamente al proyecto o actividad cultural, estructuras arquitectónicas para exposiciones y decorados, amortización de instrumentos, programas informáticos y equipos, los costes de acceso a obras amparadas por derechos de autor y otros contenidos protegidos por derechos de propiedad intelectual, los costes de promoción y los costes directamente derivados del proyecto o actividad.

e) los costes del personal que trabaje para la institución cultural o el bien de interés cultural o para un proyecto.

f) los costes de los servicios de asesoramiento y apoyo prestados por consultores externos y proveedores de servicios, derivados directamente del proyecto.

Asimismo, la entidad no podrá resultar beneficiaria en caso de que se verifique una de las dos siguientes circunstancias:

- Si se trata de una empresa en crisis, de acuerdo con la definición contenida en las *Directrices sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas en crisis (DOUE C249, de 31 de julio de 2014)*.
- Si se encuentra sujeta a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común.

De conformidad con lo previsto en el artículo 11 RGEC, la Dirección de Promoción de la Cultura transmitirá a la Comisión Europea, a través del sistema de notificación electrónica, la información resumida relativa a la presente subvención, junto con el texto completo de la subvención, incluidas sus modificaciones, en un plazo de 20 días laborables a partir de la adopción del presente Acuerdo.

Asimismo, en aplicación de lo previsto en el artículo 9 RGEC, la Dirección de Promoción de la Cultura publicará en su página web la siguiente información:



- KASEOren 11. artikuluan aipatzen den informazio laburtua (KASEOren II. eranskinean ezarritako formatu normalizatuan).
- Erabaki honen testu osoa.

- La información resumida a que se refiere el artículo 11 RGEC (en el formato normalizado establecido en el anexo II del RGEC).

- El texto completo del presente Acuerdo.

Bederatzigarrena.- Erabaki hau erakunde interesdunari jakinaraztea.

Noveno.- Notifíquese el presente Acuerdo a la entidad interesada.

Elévese a la aprobación del Consejo de Gobierno Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki dezan

Vitoria-Gasteizen, izenpe elektronikoaren datan,

Bingen Zupiria Gorostidi
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUA